

## **Carlos Blanco Aguinaga idazle eta hispanistaren izena jarriko diote Irungo San Juan plazako liburutegi berriari**

**Pasa den astean kalifornian hil zen irundar jatorriko irakaslea, 87 urte zituela**

IRUN. Jatorri irundarra zuen Carlos Blanco Aguinaga idazle, hispanista eta irakaslearen izena jarriko diote Irungo San Juan plazako udal liburutegi berriari.

Hala iragarri du Irungo Udalak, astelehenean Carlos Blancoren heriotza dela eta bidalitako prentsa oharrean. Honetan, Jose Antonio Santano alkateak 'hiriaren samina' azaldu du pasatako astean Kaliforniako La Jolla hirian (EEBB) 87 urte zituela hil den idazlearen heriotzarengatik.

Ohar honetan, Udalak aditzera eman du alkateak dagoeneko 'talde politikoetako bozeramaileei liburutegi berriari Carlos Blanco Aguinaga Liburutegia izena jartzeko proposamena' iragarri diela.

'Mundu mailan ezaguna izan zen letren munduko jakituna zen Carlos Blanco, irundarra jaiotzez, eta era honetan, bere izenak bere bizilagunen artean bizirik iraungo du', esan du Santanok.

### **Erbesteratua**

Carlos Blanco Aguinaga (Irun, 1926-La Jolla, 2013) hispanista eta idazleen zenbait belaunaldirengan eragin handia izan zuen idazle eta irakaslea izan da.

Gerra Zibila piztu zenean, berak eta sendiak Hendaiara ihes egin behar izan zuten eta ondoren, 1939an, Mexikora erbesteratu ziren. Han hasi zituen Blancok unibertsitate ikasketak eta ondoren, Harvarden beka bat lortu eta EEBBetara joan zen, non 1948an amaituko zituen bere ikasketak.

Itsasgizona izan ondoren, Mexikora itzuli eta Letra Hispanikoen doktoretu zen UNAM unibertsitatean. Gero EEBBetako Ohio, Johns Hopkins eta San Diego-La Jolla unibertsitateetan aritu zen irakasle, baita hasi berria zen Euskal Herriko Unibertsitatean ere, 80.eko hamarkadan.

Carlos Blanco erreferentea izan zen letra hispaniarren arloan eta eleberriez gain, zenbatezinak diren artikulu, testu klasikoen edizio, olerki-sorta eta gai filologikoetako zein literatura kritikako lanen egile izan zen.